

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 312/2019 Erabakia, maiatzaren 13koa. Onestea Ogasun Zuzendaritzaren agiri multzo baten lau zatiki xahutu eta ezabatzeko baimena

Euskal Autonomia Erkidegoaren eta haren lurralde historikoen foru organoen arteko harremanen azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a).12 artikulua arabera, lurralde historikoei dagokie beren artxiboen gaineko eskumen eskusiboa. Orobat, Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legeak izaera publikoa ematen die foru erakundeen dokumentuei, agiritegi funtsei eta dokumentu bildumei. Artxibo Zerbitzuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea arautzeko Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 21eko 232/2000 Dekretuak garatzen du lege hori.

Espainiako Ondare Historikoen ekainaren 25eko 16/1985 Legeak, aldiz, administrazio publikoen dokumentazio ondarea gorde eta xahutzearen inguruko gaiak arautzen ditu. Estatuko administrazio orokorraren eta haren organismo publikoen dokumentuak ezabatzea kontrolatzeari buruzko azaroaren 8ko 1164/2002 Errege Dekretuaren bidez garatu zen lege hori, zeinak 2. artikuluan definitzen baitu zer den dokumentuak ezabatzea: dokumentuak ezabatzea da dokumentu unitateak edo serieak kokatuta dauden artxibo edo bulego publikoaren erantzukizuna duen organoak haiek fisikoki deuseztatzea, dokumentuak berregin eta berrerabiltzeko aukerarik ematen ez duen edozein bide erabiliz horretarako.

Arabako Lurralde Historikoari dagokion eskumen eskusiboa erabiliz, Dokumentazioa Ebaluatzeko eta Hautatzeko Batzordea eratu zen uztailaren 19ko 48/2005 Foru Dekretuaren bidez, zertarako eta, besteak beste, aldundiak eta bere foru erakunde autonomo eta foru sozietate publikoek sortzen dituzten dokumentu serie guztiak aztertzeko, haietarik zeintzuk gorde behar diren erabakitzeko, daukaten balio juridikoa-lege balioa kontuan harturik, eta zeintzuk ezabatu behar diren zehazteko.

1. Dokumentazioa Ebaluatzeko eta Hautatzeko Batzordeak, 2005eko abenduaren 1ean, Ogasun Zuzendaritzaren pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren likidazio eta kudeaketa espedienteen dokumentu serie bat aztertu eta analizatu zuen; hain zuzen ere, 1979tik 1996ra arteko ekitaldietakoak, eta Foru Gobernu Kontseiluari proposatu zion eman zezala baimena hura ezabatzeko, 30 edukiontzitik bat lagin gisa gordez, betiere.

Dokumentazioa Ebaluatzeko eta Hautatzeko Batzordeak, 2006ko otsailaren 6an, Ogasun Zuzendaritzaren balio erantsiaren gaineko zergaren kudeaketa espedienteen dokumentu seriea aztertu eta analizatu zuen; hain zuzen ere, 1986tik 1990ra artekoak, pertsona fisikoenak, eta orobat balio erantsiaren gaineko zergaren kudeaketa-espedienteak, 1986tik 1990ra artekoak, pertsona juridikoenak, eta Foru Gobernu Kontseiluari proposatu zion baimena eman zezala haiek ezabatzeko, 30 edukiontzitik bat lagin gisa gordez betiere.

Foru Gobernu Kontseiluak, uztailaren 17ko 559/2006 Erabakiaren bidez, erabaki zuen ezabatzea, Batzordeak proposatutako eran, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren likidazio eta kudeaketa espedienteen dokumentu serie horiek eta pertsona fisikoen eta juridikoen balio erantsiaren gaineko zergaren kudeaketa eta likidazio espediente horiek.

Ikusi da dokumentu serie horien balioespen eta kontserbazio arloetan ez dela aldaketarik egin.

Ikusi da Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 19ko 48/2005 Foru Dekretuarekin bat etorri, zeinaren bidez onespena eman baitzitzaion Arabako Foru Aldundiko Dokumentazioa Ebaluatzeko eta Hautatzeko Batzordea sortzeari, ez dela behar batzorde horren beste txostenik eragindako zatiak xahutu eta ezabatzeko.

Adierazten da ezen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 1997tik 2006ra arteko ekitaldietako likidazio eta kudeaketa espedienteen eta balio erantsiaren gaineko zergaren 1991tik 2006ra arteko ekitaldietako likidazio eta kudeaketa espedienteen dokumentu serieetako zatikiek galdua dutela beren administrazio, zerga eta lege balioa eta balio juridikoa, eta Foru Gobernu Kontseiluak 559/2006 Erabaki horren eranskinean baimendutako moduan xahutu eta ezabatu behar dira.

2. 2010eko urtarrilaren 12an, Batzordeak Ogasun Zuzendaritzaren BEZari buruzko dokumentu serie hau aztertu eta analizatu zuen: Hirugarrenetikiko operazioen urteko aitorpena (347 eta 348 ereduak), 1986tik 1995era arteko ekitaldiak, eta Foru Gobernu Kontseiluari proposatu zion baimentzeko haiek ezabatzea, ehuneko 2ko lagin aleatorio bat gordez.

Foru Gobernu Kontseiluak, otsailaren 16ko 79/2010 Erabakiaren bidez, aipatu den BEZaren dokumentu seriea ezabatzea erabaki zuen, Batzordeak proposatutakoaren arabera: Hirugarrenetikiko Eragiketen urteko aitorpena (347 eta 348 ereduak).

Ikusi da dokumentu serie hori balioetsi eta gordetzeko arloetan ez dela aldaketarik izan, salbu eta 348 eredurik ez dela egongo behin 347 eta 348 ereduak bateratu ondoren Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 6ko 13/1996 Foru Dekretuaren bidez, zeinaren bidez arautzen baitzen Zerga Administrazioari Aldizka Informazioa emateko betebeharra.

Ikusi da Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 19ko 48/2005 Foru Dekretuarekin bat etorri, zeinaren bidez onespena eman baitzitzaion Arabako Foru Aldundiko Dokumentazioa Ebaluatzeko eta Hautatzeko Batzordea sortzeari, ez dela behar batzorde horren beste txostenik eragindako zatiak xahutu eta ezabatzeko.

Adierazten da ezen hirugarrenetikiko urteko eragiketen gaineko aitorpenei (347 eredu) dagozkien espedienteen saileko 1996tik 2006ra arteko zatikiek galdua dutela beren administrazio, zerga eta lege balioa eta balio juridikoa, eta proposatzen zaio Foru Gobernu Kontseiluari haiek xahutu eta ezabatzea Batzordeak ezarritako eran.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Baimena ematea xahutu eta ezabatzeko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren likidazio eta kudeaketa espedienteak dokumentu serieko 1997tik 2006ra arteko zatikia eta pertsona fisikoen eta juridikoen balio erantsiaren gaineko zergaren espedienteetako 1991tik 2006ra arteko zatikia, uztailaren 17ko 559/2006 Erabakian ezarritako eran; I eranskinean datoz jasota.

Baimena ematea xahutu eta ezabatzeko hirugarrenetikiko operazioen urteko aitorpenen espedienteak (347 eredu) dokumentu serieko 1996tik 2006ra arteko zatikia, otsailaren 16ko 79/2010 Erabakian ezarritako eran; II. eranskinean datoz jasota.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ahalmena ematea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari onetsi beharreko neurriak eta erabakiak har ditzan, erabakitakoa egikaritu eta gauzatzeko.

Gasteiz, 2019ko maiatzaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta

Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua

IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE

Zerbitzu Orokorren zuzendaria

ANA MARÍA DEL VAL SANCHO

I. ERANSKINA

Dokumentazioa Ebaluatzeko eta Hautatzeko Batzordearen 1/05 zenbakiko proposamena, 2005eko abenduaren 1ekoa

Seriearen kodea: 20151

Seriearen izena: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren likidazio eta kudeaketa espedienteak. 1979tik 1996ra arteko ekitaldiak.

Hasiera data: 1979

Amaiera data: 1996

Unitate ekoizlea: Zuzeneko Zergen Zerbitzua - Errenta eta Ondare Atala.

Gordetzea: lagin adierazgarri bat gordeko da: hogeita hamar edukiontzitik bat.

Zein zatikirentzat eskatzen den haiek xahutu eta ezabatzeko baimena: 1997tik 2006ra artekoak.

Dokumentazioa Ebaluatzeko eta Hautatzeko Batzordearen 1/06 proposamena, 2006ko otsailaren 16koa

Seriearen kodea: 20162

Seriearen izena: Balio erantsiaren gaineko zergaren kudeaketa espedienteak, 1986tik 1990 arteko ekitaldietakoak, pertsona fisikoenak.

Hasiera data: 1986

Amaiera data: 1990

Unitate ekoizlea: BEZaren eta Zerga Berezien Atala.

Gordetzea: lagin adierazgarri bat gordeko da: hogeita hamar edukiontzitik bat.

Zein zatikirentzat eskatzen den haiek xahutu eta ezabatzeko baimena: 1991tik 2006ra artekoak.

Dokumentazioa Ebaluatzeko eta Hautatzeko Batzordearen 2/06 proposamena, 2006ko otsailaren 16koa

Seriearen kodea: 20162

Seriearen izena: Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kudeaketa espedienteak, 1986tik 1990a arteko ekitaldietakoak, pertsona juridikoenak.

Hasiera data: 1986

Amaiera data: 1990

Unitate ekoizlea: BEZaren eta Zerga Berezien Atala.

Gordetzea: lagin adierazgarri bat gordeko da: hogeita hamar edukiontzitik bat.

Zein zatikirentzat eskatzen den haiek xahutu eta ezabatzeko baimena: 1991tik 2006ra artekoak.

II. ERANSKINA

Dokumentazioa Ebaluatzeko eta Hautatzeko Batzordearen 1/10 proposamena, 2010eko urtarrilaren 12koa

Seriearen kodea: 20163

Seriearen izena: Hirugarrenetik eragiketen urteko aitopeneko espedienteak (347 eta 348 ereduak). 1986tik 1995era arteko ekitaldiak.

Hasiera data: 1986

Amaiera data: 1995

Unitate ekoizlea: Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eta Zerga Berezien Atala.

Gordetzea: ehuneko 2ko lagina.

Zein zatikirentzat eskatzen den haiek xahutu eta ezabatzeko baimena: 1996tik 2006ra artekoak.